

PROBLEMAK 6

IZENA:..... MAILA:.....

1.-



Aztertu denda honetan dauden prezioak eta erantzun:

- ✓ Zer erosi ahal dut 65 euroekin?
- ✓ 50 € baldin badaukat, zenbat falta zait prakak eta botak erosteko?
- ✓ 70 €-ekin jantzi batzuk erosi ditut eta 10 € bueltatu daidate. Zer erosi dut?
- ✓ 55 € daukat, eta arropa lote bat erosteko 10 € falta zaizkit. Zein izango da lote hori?
- ✓ Prakak eta jertsea erosteagatik 10 €-ko deskontua egin didate. 100 € eman diot dendariari ordaintzeko. Zenbat itzuli behar dit.
- ✓ 2 gauza erosten baditut, merkeenaren erdia bakarrik kobratzen didate. Jaka eta prakak erosten baditut zenbat ordaindu behar dut?

Asmatu zuk galdera pare bat

2.- Esnesaltzaile batek 8 litroko lapiko bat dauka esnez beterik, eta 3 litrokoa eta 5 litrokoa hutsik. Emakume batek 4 ltro esne eskatzen dio. Nola neurtuko ditu 4 litroak dituen lapikoak erabiliz?

3.- 3 lagunek ardo botilen kutxa bat erosi zuten. Kutxa barruan 7 botila beterik, 7 erdiraino beteta eta 7 hutsik zeuden. Banatu zituzten, eta bakoitzak botila eta ardo kopuru berbera jaso zuten. Nola egin zuten?



4.- Aurten eskolan erromatar mozorratuko gara inauteriak ospatzeko. Mozorroa egiteko ikasle bakoitzak plastikozko poltsa bat eta kartoizko kutxa erdia behar ditu. Plastikozko poltsak 2 € balio du, eta kutxa bakoitzak €1. Nire gelan 16 ikasle gara. Zenbat gastatuko dugu? Ondoko gelan 2 ikasle gehiago dira. Zenbat diru gehiago gastatuko dute guk baino?